

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2013ko apirilaren 25a. IX. urtea. 2.583. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Hainbat ekimen martxan jarri dituzte atez atekoaren aurka

Hondakin bilketari desadostasuna agertzeko zabor poltsak jarri dituzte; Villabona eta Zizurkil Txukun plataformak hitzaldia emango du gaur, Villabonako Gurea aretoan **o3**

## Bonberenea txaranga hamar urtez musika erritmoak zabaltzen

Hamar lagunek helburu finkorik gabe hasi zuten txarangaren ibilbidea **o6-7**



Bonberenea txarangako kideak, Bonberenean. HITZA



→ **Urak eragindako katastrofea.** Pedro Arrojo zuzenduriko 'Ura, ibaiak eta herriak' erakusketa dago ikusgai Tolosako Aranburu jauregian, Naturaldia jardunaldien barruan. Urak eragiten duen zorigaitzaren inguruan egiten du hausnarketa. Pedro Brufaok ibaien bizitzari buruz hitzaldia emango du gaur, Topic zentroan. **o4**

### Leitzako XXXV. Herri Krosa izango da larunbat arratsaldean

Aurrera Kirol Elkarteak antolatutako lasterketa 16:30ean hasiko da; gaztetxoek nahiz helduek hartuko dute parte **o5**

### Anoetan hasi dira errezeta elektronikoa erabiltzen

Paperezko errezeta desagertu egingo da; botikariak txartelaren bidez jakingo du gaixoak zer sendagai behar duen **o5**

### Denbora nahiz afektibitatea indar nagusi bilakatzeko proposamena

dirua egungo bizitzaren ereduaren erdigunetik kentzeko aukera aztertu du Nekane Jurado ekonomialariak Tolosan **o2**

Jaso eskualdeko informazioa gure webgunean:  
[tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

hitza info

Jarraitu albisteak  
Twitter bidez  
[@hitzatolosaldea](https://twitter.com/hitzatolosaldea)

Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza orrialdeari eman "atsegin dut"

Asteartean  
2.000  
bisitari baina gehiago  
gure webgunean!  
Eskerrik asko!

Namasté  
elispainolgia

Tel.: 943 047 955 • 651 507 608  
Etxeondo auzoa, 7 behe • Billabona

## Kuadrilla egunerako eta kartelerako gaia 'banderak' izango da

Kartel lehiaketa antolatu dute bigarren, eta lanak maiatzaren 13rako entregatu beharko dira

### I. Urkizu

Iaz lehenengoz antolatu zuten kuadrilla egunerako kartel lehiaketa; aurtengo antolatzaileek ideia-ri eutsi, eta festa egunerako nahiz kartelerako *banderak* hartu dute gaitzat. Maiatzaren 13rako entregatu beharko dira lanak.

Antolakuntza lanetan ari diren kuadrillek baldintza bakarra jarri dute kartelari begira: lanaren ardatza kuadrilla eguna bera izatea. Horrez gain, diseinua, tamaina, kolorea eta antzeko ezaugarri

guztiak egileak nahierara erabili ahal izango ditu.

Honez gain, alpatzekoa da aurtengo kuadrilla egunerako *banderak* hautatu dutela gaitzat, «kuadrilla edo talde bakoitzak bere bandera egin dezan». Honenbestez, sanjoanetako festa egunerako ez ezik, kartela bera irudikatze ere erabili beharko da banderaren ideia. Gainera, leloa ere aukeratu beharko dute kartel lehiaketako parte hartzaileek.

Egindako lanak *kuadrillaeguna2013@gmail.com* helbidera bidali beharko dira, eta saria bi lagunentzako afari bat izango da, Tolosako jatetxe batean.

Azkenik, antolatzaileek argitu egin nahi izan dute, lehiaketa honek ez duela zerikusirik sanjoanetako kartel ofiziala aukeratu duen lehiaketarekin.

## → Laburrak

### Batxilergo eta heziketa zikloen orientazioa, Orixen

**HEKUNTZA** › Alberto Ariño orientatzailearekin ordubeteko informazio saioa izango da, gaur, 19:00etan, Orixen institutu-ko Gorosabel eraikinean, batxilergoari eta heziketa zikloei buruz. DBHko 4. mailako ikasle-ek zuzendurikoa izango da saioa.

### Batxilergoko ate irekiak Laskorain ikastolan

**HEKUNTZA** › Laskorain Ikastolan, datorren ikasturteari begira, batxilergoko matrikulaziorako informazioa jaso nahi duten ikasle berrientzat ate irekiak antolatu dituzte. Informazio saioa datorren ostegunean izango da, maiatzaren 2an. 17:30ean hasiko da ate irekien aurkezpen saioa, Usabalgo Laskorain ikastolan.

### 'Kalitatearen kudeaketa' ikastaroa izen ematea

**HEKUNTZA** › Datorren astelehenean, apirilak 29, *Kalitatearen kudeaketa* ikastaroa hasiko da Tolosaldea GLHian. 20 orduko ikastaroa langileei nahiz langabetuei zuzendurikoa da, eta doakoa izango da. Lekua badago oraindik, eta izena emateko ikastetxera bertara joan daiteke, edo 943 65 11 47 telefono zenbakira deitu.

### La Jodedera taldea, bihar, Orbela tabernan

**MUSIKA** › La Jodedera taldearen kontzertua izango da, bihar, 23:00etatik aurrera, Orbela tabernan.

### Rei Kimera taldea San Esteban auzoan

**MUSIKA** › San Esteban auzoan, Rei Kimera taldeak, *La puerta de los mil ojos* lan berria aurkeztuko du, etzi, 22:30etik aurrera. Sarrera eta diskoa dohan banatuko dituzte.



Tolosako kultur etxean eskaini zuten, Nekane Juradok, hitzaldia. I. URKIZU

Dirua egungo bizitza ereduaren erdigunetik kendu, eta denbora nahiz afektibitate gizartearen indar nagusi bilakatzeko proposamena egin du Nekane Juradok, 'Krisia emakumearen ikuspegitik' hitzaldian.

# Krisiari aurre egiteko psikologiaren bideak

### Itzea Urkizu

**H**istoriako krisi guztiek «emakumearen parte-hartzea gutxitu edo ezabatu dute». Orain arteko ekonomia eta gizarte ereduak, ordea, badute alternatibarik, Nekane Jurado ekonomialari eta psikologoak *Krisia emakumearen ikuspegitik* hitzaldian azaldu zuten moduan: denbora eta afektibitatea dira gakoa.

Emakumeek sortzen duten aberastasun erreala ez da kontuan hartzen. Eredu sozial, ekologista eta feminista batetik, hala ere, krisiari aurre egiteko bideak eraiki daitezkeela uste du Nekane Juradok.

Enpresa sektoreak, batetik, emakumeek sortzen duten aberastasun erreala hori xurgatzen duela nabarmendu zuen hitzaldian: «Gutxieneko soldatak markatzearena joko ba da. Berez, etxe batean bizitzeko gutxieneko soldata zehazten dute, baina emakumea etxean baldin badago, kanpora lanera joan gabe, emakume horrek behar-beharrezkoak di-

ren zenbait gastu etxeko lanekin ordezkatzen ditu».

Bide beretik, sektore publikoak murrizketekin ere emakumearen lan hori etxera bideratzeko moduak bilatzen dituela dio.

### «Gu gara aberastasuna»

Gizarte eredu berri batera iritea utopiatik urrun dagoela aldarrikatu zuen Juradok, eta eredu sozial, ekologista eta feminista batera begira jarri zen.

Lehenik eta behin, aberastasuna gizarteak berak sortzen duela garrantzitsutzat du psikologoak: «Giza kapitala gu gara, eta diruak, gaur egun, paperak berak balio duena soilik balio du. Goazen, beraz, trukerako bideak sortzera». Horrela, eta eguneko 24 orduak denontzat berberak direla azpimarratuz, truke sistema bat sor litekeela dio, «psiko-afektibitatearen oinarrituriko truke sistema bat, gainera».

Gizarte eredu berriak sortzeko, ordea, urteetan barrena herritarrek barruan izan dituzten beldurrak atzean utzi behar direla uste du Nekane Juradok.

Batetik, lehiakortasuna ahas-tu behar da bere ustez, «guztiok maila berean egon gaitzen». Era berean, aipatuak izatearen beldurra, taldean norbera ez onartzeko beldurra nahiz aldameneko pertsonekin konpromisorako beldurra aipatu zituen.

Hau guztia kontuan izanda, eta tresna ekonomikorik gabe, ema-



**Psiko-afektibitatearen oinarrituriko truke sistema bat sor liteke»**

**NEKANE JURADO**  
Ekonomialaria eta psikologoa

kumeek abiarazi dezaketen bizi-ikuspegi bat proposatu zuen Juradok.

«Egun go eredu sozio-ekonomikoaren aurrean, pertzepzioa falta zaio gizarteari», azpimarratu zuen batetik. Bigarren tresna, berri, sormena litzateke bere ustez, bai sortzeko, eta baita barrura begiratzeko ere. Era berean, aldameneko bihotza kontuan izatea «ahaztu egin zaigun zerbitzu» bere ustez.

Azkenik, bizi erritmoak ere aldatzeko beharra du bere ustez: «Kontumoaren bat-bateotasun hori kapitalistei soilik interesatzen zaie, baina bizitza ezin da azeleratu. Denbora hartu behar da bizitzeko, eta zoriontasun eredu bat sortu».

## ↓ Iragarki laburrak

### ETXEBIZITZA

**Alokagai.** Amezketan, alokairuan jartzeko etxebizitza bat eskaintzen da. Interesatuak, deitu 645 734584 telefono zenbakira.

### LANBILA

**Etxeko lanak.** Goizetan, etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, autodun emakume eskaldunak bere burua eskaintzen du. 943 696882 / 606 521992.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Hondakinen gaiaren inguruan, eskualdeko herritar ugari atez atekoaren aurka daudela azaltzeko, zabor poltsak jarri dituzte balkoietan. A. IMAZ

# Zabor poltsak eta hitzaldiak, atez atekoaren aurkakotasuna azaltzeko

Villabona eta Zizurkil Txukun plataformak hitzaldia antolatu du Gurea zinemaren, gaur, 20:00etan

## Asier Imaiz

Tolosaldeko herri nagusietan paisaia aldatu da azken asteetan. Balkoietan zabor poltsak ikusten dira han eta hemen. Hondakin bilketaren harira jarri dituzte bizilagunek zabor poltsak, hain zuzen ere, atez atekoaren aurka daudela agertzeko. Horrez gain, Tolosaldea Txukun plataforma batzar informatiboak antolatzen ari da. Alegian, Anoetan edo Ibarren egin bezala, gaur, Amasa-Villabonan antolatu dute hitzaldia. Gurea zinema aretoan, 20:00etan. Villabona eta Zizurkil Txukun mugimenduak Patxi Amantegi eramango du Gureara, «birziklapenaren alde, eta atez atekoaren aurka» euren ikuspuntua azaltzera.

Ibarako kultur etxean astelehenean izan zen Patxi Amantegi, Olatz Peon Tolosaldea Txukuneko kidea alboan zuela. Gipuzkoako plataformen koordinatzaileen hitzaldira, herritar ugari joan ziren; 120 lagun inguruk kultur etxea txiki utzi zuten. Plataformako bozeramaleak hitz egin zuen, eta «atez atekoaren inposaketa» salatu zuen Amantegik. Ibarako Udalarai, «herritarren borondatea errespetatzea eskatuz», Tolosaldea Txukuneko bo-

zeramaleak. Amantegik, «inposazioa» salatu zuen, eta udalak auzokideak behartu egin nahi dituela esan zuen, «zikinagoa, deserosoagoa eta garestiagoa den atez ateko bilketa sistema erabiltzera».

Tolosaldea Txukun plataformako bozeramalea, gaur egun, edukiontzien bidez egiten den gaikako bilketaren alde agertu zen, eta hondakin organikoak biltzeko bosgarren edukiontzia hedatzea eskatu zuen, bere esanetan, «askoz erosoagoa eta garbia-goa» delako.

Amantegik, bere hitzaldian, Eguzki ekologista taldea aipatu zuen, bosgarren edukiontzia alde egiteko: «20 urte daramatzan

## Tolosaldea Txukuneko hondakinen inguruko herri galdeketa egitea eskatu du Ibarren

Eguzki ekologista elkarteak bere web orrian, bosgarren edukiontzia alde egiteko emaitza berdinar lor daitezkeela onartzen du». Bide horretatik, Tolosaldeko Zabor Mankomunitateak bosgarren edukiontzia haur zabaltzearen aurka duen jarrera salatu zuen, eta horrela, «gutxi birziklatzen dela argudiatu, eta «txintxilarioak» inposatu» nahi dituela ondorioztatu zuen.

Hitzaldiaren amaieran, herritarrei eman zitzaizen hitza, eta gaia eskatzen duen zatiketa agerian gelditu zen.

Tolosaldea Txukunetik hitzal-

dira joandako guztiei eskerrak eman nahi izan dizkie, eta «Ibarren atez atekoaren aurka 1.470 bizilagunek sinatu dutela» aipatu dute. Bilduko udal gobernu taldeari Legazpiko ereduaren kontuan hartzeko esan die plataformatik, eta «ibartarren eskaerei begiak eta belarriak zabaltzeko». Hitzaldian esan bezala, hondakin bilketaren inguruan galdeketa egitea ere eskatu dute Tolosaldea Txukunetik.

## Ibarako PSE-EE ere bat

Aitor Gonzalez PSE-EEren Ibarako zinegotziak atez atekoaren aurkako herri plataformaren alde egin du, eta horrez gain, Tolosaldea Txukuneko aldarrikapen guztiak bat egiten dutela gaineratu du.

Gonzalezek Ibarako udal taldea kritikatu du, eta aldi berean, «herri plataformarekin hartu emanik ez duela edukia». PSE-EEren zinegotziaren ustez, elkarlanean zuzendutako «1.470 ibartarren sinadurarekin» irabazi du

## Aitor Gonzalez: «Atez atekoak ez du ekiditen errauste plantaren edo zabortegeen beharra»

herri plataformak: «Birziklatzearen alde daudela erakutsi dute ibartar hauek, baina atez atekoari ezezko borobila eman diote. Bilduk hauteskundeetan «1.100 boto» lortu zituela ere gogoratu du Euskadiko Alderdi Sozialistako zinegotziak.

Aitor Gonzalezek Ibarako balkoietan dauden zabor poltsen garrantzia azpimarratu nahi izan du, «egunetik egunera ugari-tuz» doazela gaineratuz. Zakar poltsak atez atekoaren aurka protestak egiteko jarri dituztela dio PSE-EEren Ibarako zinegotziak: «Herritarrek izango dira kalte-tan nagusiak hondakin bilketaren inposaketarekin, bilketa bera, garestiagoa, zikinagoa eta deserosoagoa izango baita».

Jexux Peñagarikano Ibarako alkateari ere zuzendu zaio Aitor Gonzalez, herri mugimenduari oihartzuna emateko eskatuz. Horrez gain, «udaletxean datuak ezkutatzeko direla» salatu du PSE-EEren zinegotziak. «Ibarako alkateak osoko bilkuran atez atekoa bai edo bai jarriko zuela esan zuen, eta parte hartze prozesua, zein motatakoa izango zen erabakitzen bideratuko zuela», dio Gonzalezek eta bideragarritan esan du, ez eta, txosten ekonomikorik edo atez atekoa jartzeko aurrekonturik ere: «Hauetaz galde-tuta, erantzuna beti bera izan da, ez. Erabakia hartu dute, baina ez dakigu zein interesekin. Herritarren aurkako inposaketa hutsa da».

Azkenik, Aitor Gonzalezek birziklatzearen alde daudela esan du, baina ez atez atekoarekin bezala, «derrigorrezko neurrien bidez». PSE-EEren ordezkariak gaineratu duenez, «atez atekoa %20 garestiagoa da, eta ez du ekiditen errauste plantaren edo zabortegearen beharra».

## Gutuna

### Ibaiek bizirik, urtegi erraldoirik ez!

Egunotan egiten ari diren Naturaldia jardunaldien ildoan aprobetxatu nahi nuen, egitarauan agertzen den argazki bati buruz hitz egiteko. Bertan bakarrik izen bat agertzen da (egilearena uste dut, Micah Garen). Argazkia Kurdistango Hasankayf hirikoa da. Gauzatzekotan, 12.000 urteko hiri hori urtegi batek estaliko du. Dagoeneko bertako batzuen berkokapena hasi da. Baina ez guztiona: horrelako azpigitura erraldoietan (urtegi hau Turkiako handiena izango da) kaltetuak aurrekusi dituztenak baino askoz gehiago izaten dira: leizetan bizi den jendea, urtegia eta gero dauden arrantzaleak eta, noski, Siria eta Irakeko biztanleak. Herri hauen gobernuen ez du oraindik Turkiakoak hitz egin; denok dakigu zer nolako egoeretan dauden herri hauek. Ilisu eta gero, Tigris ibaia Iraken sartzen da eta hortik aurrera herri hori zeharkatzen du 1.000 kilometro baino gehiago eginez. Basamortua denez, kontu egin zer nolako garrantzia izango duen Tigrisak Irakeko ingurumen eta jendearentzako!

Ilisu urtegia BBVAK finantzatuta dago, BBVAK Turkiako Garrantzi Bank erosi baitzuen (2010). Garrantzi Bank eta Akbank dira Ilisu urtegioko finantzari bakarrik. Horretaz aparte BBVAK urtegi asko finantzatu ditu: Barra Grande eta Campos Novos urtegiak (Brasil), El Cajón eta El Zapotillo (Mexiko), beste bost BAKER eta Pascua ibaietan (Txile; oraintxe bertan geldituta). Ilisu urtegia deuseztu dute beste gobernuak eta enpresek aurretik, hiritarren eraginez. Horrela izan zen 2001ean, Erresuma Batuen gobernuak espordazio baimena gelditu zuenean, edo 2009ean Alemaniak, Austriak eta Suitzak gauza berdina egin zutenean ingurumen baldintzak ez baitzuten betetzen. Turkiako epaitegiek deuseztu dute ere, azken aldiz aurtengo urtarrilean, eta aurretik 2012ko urtarrilean, Turkiako legearen aurka egiteagatik. Orduan Turkiako Gobernuak legedia aldatu zuen (Itioitzekin gertutakoa gogorarazten digu...). Beraz, hermenik ere BBVARI eskatzen diegu hari dagokion finantzaketaz kentzea, eta beste finantzari, eraikitzaile eta Turkiar Gobernuari eragitea, behin bitirako proiektu hau gelditzeko.

Horregatik, ezinbestekoa da informazioa jasotzea gero iritzi bat osatzeko eta horren arabera ekiteko. Gure esku dago ura eta ibaiek aske eta bizirik izatea. Gure esku dago aipatutako proiektuak gelditzea.

■ **Martin Mantxo**, Ekologistak Martxan-eko kidea.

# Holokausto hidrologikoaren biktimen ahotsa, Aranburu jauregian

Naturaldia jardunaldien barruan, Pedro Arrojoek zuzenduriko 'Ura, ibaiak eta herriak' erakusketa ikusgai dago

## Itzea Urkizu

Munduan 1.000 milioi pertsonatik gora dira, egunero-egunero, edateko urik izaten ez dutenak. Arrazoi honegatik, 10.000 pertsona hiltzen dira egunero, eta haurrak izaten dira gehienak. Pedro Arrojoek *holokausto hidrologiko* izena jarri die, urak eragindako katastrofe hauei guztiei; holokausto hauetako biktima ikusezinei ahotsa eta irudiak eman nahi izan dizkie, Aranburu jauregian ikusgai dagoen *Ura, ibaiak eta herriak* erakusketan.

Presak eraikitzen hasi, eta Katrinaren gisako katastrofe naturalerainoko errelitateak errepasatu ditu erakusketak, irudi gordinetan barrena. Uraren kudeaketa txarrak eragindako krisi honi aurre egin zioten aitzindariak, ordea, itxaropenaren ku-

tsua ere ezartzen diete argazkiei. Nazioarteko zortzi argazkilariren 180 irudiren bidez, lanak gaika sailkatu ditu Pedro Arrojoek: *Presak Handiak*; *Giza eskubidea, indarkeria eta ura*; *Hondamendiak eta herrien ahultasuna*; *Ekosistema akuatikoen degradazioa eta gosea*; *Pribatizazioa eta edateko ura izateko giza eskubidea*, eta azkenik, *Garaipenak eta aukera onak*.

Datorren maiatzaren 11ra bitarte ikusgai izango da, beraz, Aranburu jauregian, *Ura, ibaiak eta herriak* erakusketa.

## Ibaiei beren bizia itzultzea

Naturaldia jardunaldien barruko saioetan, Pedro Brufao izango da gaurko hizlaria. *Ríos con vida* hitzaldia eskainiko du, Topic zentroan, eta izen bereko erakundeari buruz ere ariko da.

Aurtengo Naturaldia amaitzeko, azkenik, amaiera hitzaldia maiatzaren 16an izango da, Donostiako Aquariumean, Miguel Delibes de Castroren eskutik; *Ura, baliabide baliotsu eta mugatua* izenburupean ariko da, 19:30etik aurrera.



Presak handiek eragindako lekualdatzak eta erretratatu dituzte. HITZA



Katrina katastrofe naturala nola bizi izan zuten ikus daiteke zenbait argazkitan. HITZA

**Pedro Brufao** • AEMS-Ríos con vida taldeko koordinatzailea

## «Uraren erabilera ilegalaren aurka borroka egin behar da»

### I. Urkizu

Ingurumen zuzenbidean aditua da Pedro Brufao (Cadiz, 1970), eta AEMS-Ríos con vida erakundearen koordinatzailea da bere jardunetako bat. Ibaietako bizitzari buruz hitzaldia eskainiko du, gaur, 19:00etan, Topic zentroan.

### Zertaz ariko zara 'Ríos con vida' hitzaldian?

Espainiako ibaien egoeraz ariko naiz, eta egoera hori nola iritsi den ere azalduko dut. Horrekin batera, ibaiak bizitzaren pixka bat bueltatzeko, zenbait erakundek elkarlanean egin ditugun proposamenak ere hizpide izango ditut. **Ibai asko al daude egoera kezkagarrian?**

Hasteko, esan behar da, Espainian 100 kilometro baino gehiago dituzten ibaien artean, bakarrak dituzten ibaien artean, Almonte ibaiak da, eta Caceresen dago. Monfrague biosferaren erreserbaren zati da. Honekin, guztia esanda dago: Espainiako arro handienak hamaika eta bat aldiz zatikatuta

daude, eta berez, ibai izaerarik ez du ez Ebrok, ez Jucarrek, ez Segurak, ez Duerok, ezta Guadianak ere. Galdutako berezko funtzionaltasun ekologiko, biologiko eta geografikoa. Finean, geldiarazita eta kutsatuta ur masak dira ibai horiek guztiak.

### Gizakiak eragin handia du, beraz, ibaien egoera txar honetan.

Bai, noski. Adibide bat jartzearen, Deba ibai txikiak, bere ibilbide osoan, 233 oztopo ditu, 233 aldiz zatituta dago. Bidasoa, berriz, 100 alditan baino gehiagotan zatitu dute. Egoera honetan, beraz, ibai gutxi biziraun dezake.

### Eta zuk, honen aurreran, zein neurri proposatuko zenituzke?

Lehenik eta behin, lurralde antolaketa ona egin behar da, izan ere, ibaiak lurraldearen zati dira. Eta ibaiak ura baino askoz ere gehiago dira; kanalaz, mendi hegalaz, lautadaz eta ur geruzez haratago, askoz ere gehiago dira ibaiak, eta arroari eragiten dion guztiak eragiten dio ibaiari berari. Honekin batera, gaur egun indarrean dagoen kontzesio sistema berrantolatu behar dela uste dut; kontzesioak Espainian egiten dira, eta ibai eta arro publikoen pribatizazioak epe oso-oso luzeetarako ematen dituzte.

### Zenbat urterako?

Espainian egindako ibaien kontzesio gehienei, 2061. urtean amaituko zaie epea, eta XX. mendean hasieran emandakoak dira. Mende eta erdi egon gaitzke, beraz, ibaiak esku pribatuaren pean izanda, eta erabilera guztiz ekonomikoarekin.

**Ura nahierara erabil dezakete, beraz, jabe hauek?**

Bai. Hain zuzen ere, hirugarren neurri gisa, uraren erabilera ilegalaren aurka borroka egin behar dela aipatuko nuke. Zoritzarrez, uraren erabilera ilegalak, hamaitz aldiz biderkatzen dituzte legearen barruko erabilera. Behin hiru neurri horiek hartuta, ibaiak ondo kudeatzen has gitezke.

### Zatikatzeekin batera, ibaiak oso kutsatuta zeuden duela zenbait urte. Araztegiekin aurrerapausorik nabaritu da ibaietan?

Noski. Uraren landa-erabilera eta erabilera industrialari dago-kionez, egoera asko hobetu da. Jada ezabatu da, Euskal Herriko ibaietan metro inguruko apararekin ikusten ziren ibai haien irudia. Erakunde, enpresa eta norbanako askoren lanak ekarritako lorpena da hau, baina hala ere, bada oraindik, egitekorik.

### Honekin guztiak, biodibertsitateari zuzenean eragiten dio.

Kontua da, ibaietako biodibertsitate Lurreko aberatsenetakoa dela. Biodibertsitate hau bera da, ibaietako habitata suntsitzearen eragin txarrak jasotzen dituen, eta espezie inbaditzaileen zabalteak ere kalte handia egiten dio.

### Lehentasunezkoa da, beraz, herritarrek ibaietako kontzientzia hartzea.

Azken finean, ibaiak jabetza publikokoak dira, eta lurraldearen antolaketa guztioi eragiten digu. Beraz, informazioa jasotzea berebizikoa da, gainerakoan, etekinatarako ibaiak aprobeztatu nahi duenak edozein eragin dezakeelako. Norbera izan daiteke, ibaien zaintzaile. Informazio gehiagorako [www.riosconvida.es](http://www.riosconvida.es) bisita dezakete herritarrek.



HITZAK harpidedunentzat **sarrera pare bat** du



**LAGUN ARO GBC**  
Blusens Monbus  
saskibaloia partida

Apirilak 27 • Larunbata  
19:15ean Donostiako Ilunben

hitza

Zozketan parte hartzeko deitu **943 65 56 95** telefono zenbakira



sarrerak

HITZAK harpidedunentzat **sarrera pare bat** du

**KMK'13ren aldeko kontzertua**  
**BENITO LERTXUNDI KANTATUZ**

Apirilak 26 • Ostirala  
20:30ean Tolosako Leidorren



# Gazte nahiz helduen Herri Krosa hartuko du Leitzak, etzi arratsaldez

Aurrera Kirol Elkarteak antolatuta, 35. urtea du aurrez nahiz lasterketak; aurrez nahiz egunean eman daiteke izena

**Iñigo Terradillos** Leitza

Gazteenetik hasi eta helduetara, neska zein mutil, hitzordu polita dute guztiak etzi arratsaldean Leitzan. Aurrera Kirol Elkarteak antolatuta, eta Leitzako Udala-ren, Kaxkabeltza merkatarien elkartearen eta TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariaren laguntzarekin XXXV. Herri Krosa egingo dute.

16:30ean hasiko dira lasterka korrikalariak. Hauek zazpi kategoriatan banatuta ariko dira. Benjaminek 800 metroko ibilbidea egingo dute; alebinek eta infantilek 2.500 metrokoa; kadeteek, juniorrek eta senior emakumeek 5.000 metrokoa, eta senior gizonezkoek, 10.000 metrokoa. Benjaminak izango dira abiatuko diren lehendabizikoak, ondoren, 17:00etan, alebinak eta infantilak irtengo dira, eta 17:30ean gainerakoek egingo dute.

Nahi duen herritar orok parte hartu ahalko du proba honetan. Aurrez eman ahalko da izena, [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) webgunean, gaur delarik azken eguna, edo bestela, lasterketaren egunean bertan, izen emate orria beteta, Aurrera kirol elkartearen, 15:30etik



Pasa den urteko herri krosean gaztetxoak korrika. ASIER IMAZ

16:30era. Izena aurretik ematen duten Aurrera elkarteko bazkideek 9 euro ordainduko dute, eta gainerakoek txiparen arabera, 9 edo 10 euro. Lasterketa egunean bertan izena ematen duten Aurrera elkarteko bazkideek 10 euro ordainduko dute, eta gainerakoek 15 euro.

## Sari ugari

Bestalde, lasterketa amaitzen dutenean parte hartzaileek kiroldegian dutxa hartu ahalko dute. Mailla guztietako korrikalari guztiak helmugaratzen direnean,

sari banaketa eta luncha egingo dute. Benjamin, alebin, infantil eta kadeteek dominak emango zaizkie, eta beste guztiak kamiseta bana jasoko dute. Trofeoak kategoriatan bakoitzeko lehenengo eta bigarren sailkatuari, eta lehenengo leitzarrari emango dizkiete, eta diru saria, berriz, sailkapen orokorreko lehen lau korrikalarietako jasoko dute, kategoriak konstante hartu gabe.

Igande goizetik larunbat arratsaldera aldatu zutenetik, 200 lagun inguruk parte hartu izan dute azken urteetan Leitzako he-

rri krosean, baina antolatzaileek azaldu dutenez, gutxiago espero dute aurrez, aurrez izena emandako kopurua oraindik nahiko txikia delako. «Leitzarrak ezezik, Nafarroako hainbat herritako jendea gerturatzeko da, Iruñea aldekoak, esaterako, eta Gipuzkoatik ere jende ugari etorri ohi da, Donostiatik, Tolosatik, Andoaindik edota Ibarrik adibidez», adierazi dute Aurrera elkartetik.

Bada, herritar guztiak animatu dituzte etzi Leitzara joan eta lasterketan parte hartzera, «giro ederra nagusituko baita».

## Errezeta elektronikoa erabiltzen hasi dira anoetarrak

Aurrerantzean, medikuek zuzenean jakinaraziko diote botikariari gaixoak zein botika behar duen

**I. Terradillos** Anoeta

Errezeta elektronikoa martxan da Anoetan. Hondarrabia eta Oñati izan ziren sistema hau Gipuzkoan abian jarri zuten lehen herriak, eta orain Anoeta batu zaie, Goierriko lau herrirekin batera, Lazkao, Ormaiztegi, Zegama eta Olaberria, hain justu. Atzo hasi ziren anoetarrak sistema berria erabiltzen.

Hemendik aurrera, beraz, medikuek zuzenean jakinaraziko diete farmazialariei gaixo bakoitzari zein botika eman behar dioten, sistema informatiko baten bidez. Horri esker, gaixo kronikoek, esaterako, ez dute ambulatoriara joan beharrik izango errezetak eskatzera, txartela erakustearekin nahikoa izango baitute. Txipari esker, ordenagailuaren pantailan agertuko zaie botikariei paziente horrek zer sendagai behar duen.

Paperezko errezeta desagertu egingo da, gainontzeko gaixoei ere ez baitute erabiliko. Osakidetzaaren helburua sistema berri honenkin, jarraipen ahalik eta zorroztzena egitea da.



## harpidedun izateak badu saria

### zozketa

#### 1 Casa Julian

**Bi laguntzako bazkaria edo afaria**

Santa Klara, 6 • Tolosa  
Tel.: 943-67 14 17  
[www.casajuliandetolosa.com](http://www.casajuliandetolosa.com)



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**

#### 2 Hitza

**Mutilentzako Kirol jertsea Neurria M**




Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**

#### 3 Donostiako Aquariuma

**Bi laguntzako bina sarrera**

[www.aquariumss.com](http://www.aquariumss.com)

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**



Parte hartzeko deitu: **902-82 02 40** edo sartu [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info) helbidean ZOKZETAK atalean. Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean, nahi duzun orduan. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.

harpidedun  
**TXOKOA hitza**

Egun batetik bestera, helburu finkorik gabe, eta hamar lagunekin hasi zuen bidea Bonberenea Txarangak. Urteen poderioz, hiru bider handitu da taldea. Bizitako esperientziek, musikari gisa aberastu ditu gazteak, eta gaur egun, helmuga ez dute finkatu. Ez dute mugarik.

# Hamarkada bat musikariak hazi eta heziz



**2003:** Bonberenearen urteurrena ospatzeko musika eskolako hainbat gazte batu ziren. Txaranga kalera irten zen lehen aldia izan zen hura, eta hasieran, gehiagorako asmorik ez zuten.



**2004:** San Joanetan, ordea, ederki pasa zutela ikusita, irteera errepikatzea erabaki zuten, eta ordurako, jada, kamisetak egin zituzten.



**2005:** Bonberenea Txaranga izeneko zazpi kantuz osatutako diska argitaratu zuten. Irudian, Txarangako kideak aurkezpen egunean, Donostiako Koldo Mitxelena kulturgunean.



**2006:** Herriari harrera ona izan zuen diskak, eta herriz herri ibili ziren. Gainera, pixkanaka taldea handitzen joan zen, txarangako kideen familiarterako gazteak eta lagunak sartuz.



**2007:** Bonberenearen urteurrena ospatzeko geroz eta herriko jende gehiago biltzen zen. Txarangak, herritarrei gaztetxeko ateak ireki zizkien.



**2008:** Bigarren diskoa, 'Rocka eta urrezko komona', grabatu zuten. Denbora luzea eman zuten hau prestatu eta grabatzen, baina Euskal Herri mailan arrakasta izan zuen.



**2009:** Bigarren diskaren ondoren, Euskal Herri osoko zenbait lekutan aritu dira, Iruñea, Gasteiz, Donostia, Bilbo, Hondarribia, Irun, Arrasate... Irudian, San Ferminetako une bat.



**2010:** Bonberenea ez botatzeko eskatuz, kalejira erraldoia egin zen SUTAN lelopean. Txaranga ere bertan izan zen, inguruko hainbat lagun bilduz. Ia 100 musikari bildu ziren.



**2011:** Pirritx eta Porrotzekin batera hirugarren diska egin zuten, eta Euskal Herriko areto asko bate dituzte pailazoekin batera. Poster honen bidez, ume askoren 'lagun' egin dira.



**2012-2013:** Joan den urteko ekainean 'Etxean Zuzenean' izeneko kontzertua eskaini zuten, urte hauetan egindako lanaren errebaso gisa. Kontzertua grabatu, eta DVD batean argitaratu zuten. Datorren maiatzaren 24ean, Kilometroaken laguntzarekin, kontzertua errepikatuko dute Laskorain Ikastolako Sakramentinoen egoitzako patioan. Kontzertuan, ordea, kolaboratzaile bereziak izango dituzte, hala nola, Aitor Gorosabel (Su ta Gar), Aiora Renteria (Zea Mays), Francis Diez (Doctor Deseo), edota Aiora Zulaika eta Joxe Mari Agirretxe (Pirritx eta Porrotx).

**Ion Altuna 'Miles' eta Mikel Zelaia 'Mirri' ◉ Bonberenea Txarangako kideak**

Bonberenea Txarangak badu zerbait ezberdina: elkarlanerako duen filosofia. Duela hamar urte sortu zen lagunartean, eta ilusio bera mantendu dute. Sekretua, esperimentatzean omen dago.

# «Ez gara pentsatzen jarri egin dugun guztiaz, urteen poderioz ohartuko gara»

**M. Iraola** Tolosa

Zaila da Ion Altuna (Tolosa, 1987) eta Mikel Zelaia (Tolosa, 1992) hamar urte hauetan Bonberenea Txaranga izan duten funtzioa zein den azaltzea: zuzendari gisa aritu izan dira, kantu eta moldaketak egin dituzte, eta nola ez, jotzen aritzen dira. Baina zein instrumentu jotzen duten zehaztea ere ez da erraza, izan ere, hamarkada honetan, «etengabeko ikaskuntzan» aritu dira uneoro txarangari esker, eta euren musika ezagutzak areagotu dituzte.

**Zer-nolako balantze egiten duzue hamar urte hauen inguruan?**

**Mikel Zelaia:** Balantze bat egiteko, izan dugun eboluzioa ikustea besterik ez dago.

**Ze bilakaera izan du, ba?**

**Ion Altuna:** Duela hamar urte, abenduan, Bonberenearen urteurrena ospatzeko bandan ibiltzen ginen gazteak elkartu ginen, etorkizunari begira inongo helbururik gabe. Primeran pasa genuen, eta sanjoanetan berriz ere ateratzea erabaki genuen. Harrez geroztik, emandako pauso bakoitzak ondorengo bat ekarri zuen.

**M.Z.:** Hasieran ez genekien noraino iritsiko ginen ere. Eta pixkana, aurrera jarraituz, hiru disko grabatu ditugu, DVD bat kaleratu dugu, herri eta hiri askotan izan gara, lagun asko egin ditugu... Nork esango liguke...

**Ezerezetik hasita, nola eraman dira aurrera hiru disko?**

**M.Z.:** Hirurak oso ezberdinak izan dira. Oso lehenengoa esperimentala izan zen, proba bat. Estudiora sartu eta ea zer ateratzen zen. Hasieran maketa gisa planteatu zen, baina azkenean kantu gehiago sartu eta disko itxura izaten amaitu zuen. Nik hamahiru urte nituen orduan.



BONBEREENA

**I.A.:** Nik 18 nituen, eta adin horiekin bat batean Koldo Mitxelena geunden diskoa aurkeztu. Tolosan, horrelako *boom* bat izan zen, zerbait berria izan zelako, herriko gazteek egina. 500 ale ateratu nituen, eta gaur egun ez da bakar bat ere geratzen.

**Ondoren Rocka eta urrezko komona izeneko diska etorri zen...**

**I.A.:** Salto kualitatibo handia izan zen. Ordu asko pasa genituen lanean. Kantuak ere ezberdinak ziren ohiko txaranga kantuetatik alde ratuta. Rock doinuak egin genituen, kaleari beste giro bat emateko. Jendearengan oso harrera ona izan zuen. Eta gaur egun ere hori mantentzen da. Adibidez, Mendizorrotzan, Alaves futbol taldeak gola sartzen duen bakoitzero, *Raymons* kantua ipintzen dute bozgorailuetan.

**Pirritx eta Porrotxekin ere ibili izan zarete. Nolako izan da hauekin egindako ibilbidea?**

**M.Z.:** Hasieran, saio batzuetan baino ez ginen ibiltzen. Ondoren, gure hirugarren diskoa publikatu genuen beraiekin batera, eta Euskal Herriko hainbat txokotan ibili gara. Nolabaiteko elkarlana izan da.

**Zer jaso duzue Pirritx eta Porrotxengandik?**

**I.A.:** Milaka pertsonen aurrean, aretoetan jotzeko esperientzia berriak bizitzeko aukera emateaz gain, txaranga lana Euskal Herri osoan zabaltzen lagundu digute. Nolabaiteko izena eman digute. **Umek ere ezagutzen zaituzte...**

**I.A.:** Bai, harrigarria da. Klean geratu izan naut, edo kaletik jotzen noala ume asko begira-begira geratu izan zaizkit, eta ondoren gurasoren bati entzuten diozu. «Pirritx eta Porrotxeko poster eta bideoetatik ezagutzen zaituzte bai». Azken finean, ume asko pailazoekin gozatu izan duten bezala, beste askok txarangaekin ere gozatu izan dute.

**M.Z.:** Arrasaten, adibidez, ume bat

txarangako posterra firmatuko ote genion galdezka etorri zitzaizgun. Ez nuen espero horrelakorik.

**Erreferente bilakatu al da Bonberenea Txaranga?**

**I.A.:** Hori baino gehiago, ezberdina dela esango nuke.

**Zer du, ba, ezberdina?**

**I.A.:** Hasteko, filosofia. Ez da beste txarangak bezalakoa. Egiten dugun guztia beste laguntza emateko da. Gehienbat Bonbereneari. Musikari bezala hezi eta hazteko aukera eman zigun, diskoak grabatu ditugu... Beraz, zerbait jaso izan dugunean, etxearantz utzi izan dugu, proiektuak aurrera eramaten jarraitzeko. Kukutzan, Gastetzen, Hondarribian eta beste hainbat tokitan izan garalaguntza behar izan dutenean. Laguntza emate horrek pertsonalki bete egiten gaitu. Azken finean, helburu sozial bat duela esan daiteke.

**Helburu sozial horien artean, hezkun-**

**tza aipatu duzu. Zer egiten du Bonberenea Txaranga alor horretan?**

**M.Z.:** Urte hauetan egindako lana ondorengo belaunaldiei erakutsi zaie. Ez du ezertarako balio lan hori gordetzeak. Ni bigarren belaunaldikoa naiz, eta lehenengokoek erakutsi zidaten bezala, orain hirugarren belaunaldikogazteei erakusten ari gara. Ez hori bakarrik. Gu ere etengabeko ikaskuntzan gaude esperientzia berriak biziz.

**Musika munduan hasi berriñan dauden herriko gazte askorentzat motibazio izan al daiteke Bonberenea Txaranga joko nahi izate hori?**

**I.A.:** Bai, baliteke. Bete eman izan diegu aukera herriko musikari gazteei, eta esan zaie horiek begi itxita etorri dira. Gauza berri asko egiteko aukera ikusten dute. Azken finean, egindako guztia eboluzio bat behar du, uneoro berritzen joan behar du. Eta horretarako garrantzitsua da gazte jendea sartzen joatea. Gure erronka lan eta ilusio hori iragaraz eta belaunaldiz belaunaldi pasatzea da.

**Epemotzean, hurrengo erronka maiztzean daukazu, kontzertu formatuan. Nolabizi duzue?**

**M.Z.:** Derberdina da. Jotzeko beste modu bat. Pasa den urteko ekainean Bonberenea DVDa grabatzeko egin genuenaren antzekoa da. Baina ezta gauza bera. Orain eszenatoki handiagoa, puntako kolaboratzaileak izango ditugu, ahotsak... Orain lanean gaude, eta horretan bakarrik pentsatzen dugu, ez da taldea nekatu behar.

**Duela urte batzuk sinetsiko al zenu- ten, adibidez, Aitor Gorosabelek inbater- ra joko zenuela esanez gero?**

**I.A.:** Ez. Bete behetik ikusi izan dugu. Berarekin joko duzula pentsatzeak, edo berak zurekin joko duela pentsatzeak, emozio izugarria pizten du. Ez berarekin bakarrik, gainontzekoekin ere bai.

**M.Z.:** Nik uste dut oraindik ez dugula baloratzen egin dugun guztia. Urteak pasa ahala ohartuko gara zer egin dugun. Iruditzen zaigu normala dela egindakoa.

**Eta hurrengo erronka gisa nazioarte- ra zabaltzea planteatu al da?**

**I.A.:** Denborak esango du. Duela bi urte ez genuen espero horrelakorik, eta begira. Ez dakit, baina momentua bizi behar dugu, eta etorriko dena, etorriko da. Bete bezala, pauso batek bestea ekarriko du. Ez daukagu helmugarik. Eta etor daitekeenari heltzeko prest gaude.

Tosalaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarrita  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



≈ **24°**  
≈ **11°**

GOIZA	LAINTUTA
ARRATSALDEA	LAINTUTA
BEROENA	15°
HOTZENA	7°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak SM  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Eneritz Maiz  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldean.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitateak:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info  
**Ibarra:** 687 410 118. ibarra@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@hitza.info

**Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:**

**BERTAKO**  
HEDABIDEAK



**Galtzaurdi euskara taldea**



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. **Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## Irudia Berastegi / Alegia



## IRAKURZALETASUNA BULTZATUZ

Ipuin Kontaketa Astea ospatzen ari dira Berastegin. Hainbat guraso eta irakasle euskara, gaztele-  
ra, portugesa, italiara eta ingelesa erabiliz kontu  
kontari ari dira hitzarekin jolasean gozatuz, eta  
etorkizuneko irakurleak heziz. Alegiako San Juan

ikastetxean ere, atzo, Liburuaren Nazioarteko  
Eguna ospatu zuten. Gurasoen, ikasleen eta ira-  
kasleen artean egin zituzten irakurketak gela zu-  
tietan. Hizkuntza ezberdinak erabili zituzten ipui-  
nak kontatzeko. HITZA

### Agurrak

**AGURRAK**  
943-65 56 95  
tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

●●● agurrak

### Farmaziak

#### GAUR

■ **Tolosa.** Egunkoia: Morant, R. Zabalarreta Lorategiak kalea, 1. Telefonoa: 943 67 38 49. Gaue-  
koa: Olarreaga, M. Martin J. Irao-  
la etorbidea, 10. Telefonoa: 943  
67 24 38.

■ **Aribe.** Garmendia, A. Kale Na-  
gusia. Telefonoa: 112.  
■ **Irurtzun.** Gastearena, M.  
Amaya kalea. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen  
egunkarian adierazitako esa-  
nen eta iritzien erantzukizunik.

**Mauka**  
berria

**GAURKO ESKAINTZA**

**Egonaldi ederra  
Errioxako inguru  
paregabe batean**

LOS MOCHUELOS CASA RURAL  
Calle Virgen de la Cuesta, 17  
Santurde de Rioja 26 260 RIOJA  
Tel.: 941-42 68 03 7 623-26 96 97  
losmochuelos@losmochuelos.es  
www.losmochuelos.es

**Prezioa**  
**33€**

**berria**  
taldea

**www.mauka.eu**

## BERRIA egunkarian udan KAZETARITZA PRAKTIKAK egiteko deialdia

### PROBAREN EGUNAK ETA TOKIAK

#### GIPIZKOAN

**EGUNA:** maiatzaren 14an  
**TOKIA:** Andoaino Martin Ugalde kultur parkea.  
**ORDUA:** 16:00etan

#### BIZKAIAN

**EGUNA:** maiatzaren 14an  
**TOKIA:** EHUko Leioako Gizarte eta Komunikazio Zientzien  
Fakultateko 30. gelan  
**ORDUA:** 12:00etan

#### ARABAN

**EGUNA:** maiatzaren 14an  
**TOKIA:** BERRIaren Gasteizko egoitza  
(Bizenta Mogel, 6, behea).  
**ORDUA:** 09:30etan

#### NAFARROAN

**EGUNA:** maiatzaren 14an  
**TOKIA:** BERRIaren Iruñeko egoitza (Iratxeko monasterioa, 45,  
eskuineko eskailera, 13. ezkerre)  
**ORDUA:** 10:00etan

Probara curriculumama ekarri behar da